

Buruntzaldea eskualdeko sei udaletako euskara zerbitzuek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) osatu dugun webgunea duzu hau, elkarrekin konpartitzen ditugun programak eta egitasmoak bildu eta ezagutarazteko.

Udalon nahia da euskararen erabilera sustatzeko burutzen ditugun egitasmoak eta ditugun bitartekoak herritarren esku jartzea, eta baita beste udal eta erakunde batzuetan ari zareten teknikarion esku ere, hartu-eman horrek aberastu egingo duelako gure lana.

Buruntzaldeko udalon asmoa da urtean hiruzpalau buletin bidaltzea, gune honetan aurki ditzakezun eduki, gai edo informazio interesgarrien berri emanez.

Hauxe duzu lehena.

Albisteak

EUSKALTEGIEN ATAL BERRIA MARTXAN DA DAGOENEKO



Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuok *Zurea bai zorrea! // ¡Estás de suerte!* euskaltegien matrikulazio kanpaina aurkeztu berri dugu, eta aldi berean **euskara.buruntzaldea.org** webgunean martxan jarri dugun *Euskaltegiak* atal berriua ezagutarazi dugu. Batetik, erabiltzaileak bere euskara mailaren gutxi gorabeherako erreferentzia emango dion

automailaketa egiteko aukera du webgunean zintzilikatu ditugun ariketa ezberdinei esker. Bestetik, eskualdeko euskaltegien eskaintza eguneratua kontsultatzeko aukera du eta, hala nahi izanez gero, aurrematrikula egin dezake. Gainera, eskaintza hori kontsultatu ahal izateko, bilatzaile bat jarri dugu martxan.

[Irakurri gehiago](#) | [Iruzkina bidali](#) | [Galderak](#)

Hartzaileen arabera webguneko edukiak berrantolatu ditugu

Buruntzaldea Euskaraz webguneko edukiak berrantolatu ditugu hartzailea kontuan hartuta. Hala, gurasoek edota merkatariak eta lan munduko profesionalak eurentzako interesgarria izan daitekeen informazio guztia biltzen duen txokoa izango dute. Alor horretan abian jarri diren egitasmoen informazioa, baliagarri izango zaien materiala, estekak, diru-laguntzei buruzko informazioa eta erakunde, elkarte eta bestelakoen aurkibidea kontsultatu ahal izango da.

Euskaraz egingo diren jardueren informazioa

Eskualdean gaztetxoei zuzenduta dauden euskarazko jarduerak eta zerbitzuak webgunean kontsulta daitezke dagoeneko. Jardueren eta zerbitzuen gida Buruntzaldeko sei udalek prestatu dute eta hamasei urtetik beherako gaztetxoei dago zuzendua. Gidan edozein haur eta gaztek ikasturte berrian euskaraz egin ditzakeen jarduerak biltzen dira, esaterako: dantza, musika, kirola... Webgunean *Aisia Euskaraz bizi!* izeneko egitasmoan bildu dugu informazio guztia.

[Irakurri gehiago](#)

OHARRA

Buletin honetan, Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuen informazioa jasoko duzu. Buletina gehiago jaso nahi ez baduzu "Harpidetza eten".

[Buletinean HARPIDETZA EGIN / ETEN](#)

Egitasmoak



Apelliduak
abizendu



Eska ezazu
haragia
euskaraz!



Haur eta gazteen
aisialdia

→ **Gehiago**